

#### **4. DIRU ITURRIAK**

##### **LEHENENGO INBERTSIOA EGITEKO DIRU-ITURRIA**

Lehenengo inbertsiorako beharko genukeen dirua, "Lanbidetik" lortuko genukeen. Izan ere, "Lanbidek", 1.700€-ko diru-laguntza eskaintzen du pertsona bakoitzeko, eta, hiru pertsona garela kontuan izanik, lortutako diru totala, 5.100€koa izango litzateke.

"Balorezko proposamena" atalean azaldutako produktuaren prezioari dagokionez, pieza bakoitzaren prezioa, 9.99€-koa izango litzateke, eta, horrenbestez, mahaiaren lau oinetan lau pieza jarri beharko zirenez, guztirako kostua, 39.99€-koa izango litzateke. Hala ere, posible izango litzateke, bakoitzaren beharren arabera, mahai bakoitzean lau pieza jarri beharrean bat, bi edota hiru pieza soilik jartzea. Ondorioz, prezioa jaitsi egin daiteke pertsona bakoitzaren beharren eta eskaeraren arabera.

Beste alde batetik, bezeroek, produktua erosteko bi modu izango lukete. Alde batetik, web-gunearen bitartez ordaintzea posible izango litzateke. Hau da, bezeroek, autozerbitzua izango luketenez, erositako produktua ordaintzeko aukera izango lukete web-gunean bertan. Beste alde batetik, transferentziak egitea ere onartuta egongo litzateke. Esaterako azaldutako produktuaren haritik jarraituz, eskolek, erositako pieza guztien prezio totala enpresaren kontura transferitzea posible izango litzateke.